

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO UDAL PROGRAMA

Ez zaude bakarrik!



ARAZORIK BADUZU, JARRI HARREMANETAN GUREKIN!

Zuri laguntzeko gaude, behar duzunerako egongo gara zure alboan

- **Zure eskubideei buruz eta erabili ditzakezun zerbitzu eta baliabideei buruz informaziorik behar baduzu,** deitu Bilboko Udaleko Berdintasun Sailera eta eskatu hitzordua (944 204 838).
- **Babesa edo segurtasuna behar badituzu,** edo salaketa bat jarri nahi baduzu, deitu Udaltzaingora (24 ordu egunean): 092/112.
- **Larrialdiko baliabideak eta zerbitzuak behar badituzu** edo egoteko leku bat lehenbailehen behar baduzu, deitu Bilboko Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzura (eguneko 24 orduetan).

Gainera, telefono bidezko informazio eta arretako zerbitzu
espezializatua erabili dezakezu.
SATEVI 900 840 111 (24 ordu)

NOLA JAKIN EMAKUMEEN AURKAKO IDARKERIA MATXISTA DEN ALA EZ?

Indarkeria matxista sufritu duzu edo sufritzen ari zara, baldin eta...

- **KONTROLATZEN BAZAITU:** denbora guztian deitzen dizu, sakelako telefonoa begiratzan dizu, nora edo norekin zoazen eta zer egiten edo esaten duzun etengabe galdetzen dizu; gastatzen duzun dirua begiratzan du, zure janzkera kontrolatzen du eta gustatzen ez bazaio arropa aldatzeko eskatzen dizu, erabakiak hartzen ditu zure izenean, eta abar.
- **ISOLATZEN BAZAITU:** ez zaio gustatzen zuk lagunak izatea, ez du gura zuk zeure familia ikustea edo harekin hitz egitea, ez du nahi zuk lan egitea edo ikastea eta abar.
- **BELDURTZEN BAZAITU:** beste pertsona batzuen aurrean mespretxatzen zaitu, beldurra diozu, oihukatzen dizu, iraintzen edo umiliatzen zaitu. Dokumentazio garrantzitsua kentzen dizu (hala nola pasaporteak edo bankuko libretak), mehatxatzen zaitu, xantaia egiten dizu eta abar. Sexu-harremanak izatera behartzen zaitu.
- **MANIPULATZEN BAZAITU:** denbora guztian esaten dizu errua zurea dela eta beti zaudela oker. Bere burua hiltzearekin mehatxatzen zaitu, edo zure seme-alabak kentzearekin eta abar.

Martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duenak, *50.2 artikuluan, xedapen orokorrak*, adierazten du emakumeen aurkako indarkeria matxista hau dela: *“Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, gizarte-arazo eta osasun publikoko arazo handi bat, botere-harreman ez-parekoen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia, eta, horretaz gainera, generoaren arabera dauden desberdinkeria-egoera estrukturalak betikotzeko funtzio soziala du. Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikiak, neska nerabeak eta emakume transexualak kontra egiten dena barne, edo neurrik kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan...”*.

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA BAT NAHI BADUZU, ZEURE BIZITZA BERRESKURATZEKO IBILBIDE PERTSONALIZATU BAT EGITEN LAGUNDUKO DIZUGU

Bilboko Udaleko **BERDINTASUN SAILEAN** hitzordua eskatu dezakezu, eta babes, informazioa eta laguntza jasoko dituzu eman ditzakezun urratsei buruz.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA ZERBITZUA:

Zerbitzu honek arreta pertsonala, osoa, jarraitua, espezializatua eta koordinatua eskaintzen die Bilbon bizi diren emakume guztiei, edozein dela ere euren adina, jatorria, kultura, dibertsitate funtzionala, sexu-orientazioa eta abar.

- Zure **eskubideei, baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazio**, balorazio eta aholkularitza zerbitzu espezializatua:
 - Babes eta lagun egite soziala
 - Arreta psikologikoa
 - Aholkularitza juridikoa
 - Prestazio sozial eta ekonomikoak eskuratzea eta beraiei buruzko orientazioa jasotzea

- **Dibertsitate funtzionala** daukaten emakumeei arreta irisgarria eskaintzen diegu.
- **Itzulpen eta interpretazioko** eta zeinu-hizkuntzako zerbitzua daukagu.
- **Konfidentzialtasuna** gordetzen dugu.
- Ez da beharrezkoa salaketa jartzea, baina egin gura baduzu laguntza emango dizugu eta zurekin egongo gara **salaketa** aurkeztean eta **babes-agindua** eskatzean.



UNE ORO EGONGO GARA ZUREKIN, ZUK NAHI DUZUNERAKO

ESKUBIDE HAUEK DITUZU:

- **DOAKO JUSTIZIA:** udaltzaingoa abokatu batekin harremanetan jarriko da, zuri salaketa jartzen laguntzeko eta, nahi baduzu, salaketa aurkeztu baino lehen egingo dituzun urratsei buruzko aholkuak emateko (indarkeriako edo indarkeria sexualeko kasuetarako), edo babes-agindu bat eskatzen laguntzeko.
- **ALDI BATERAKO PREMIAZKO ALOJAMENDUA. 24 ordu, 365 egun:** indarkeria-kasu batengatik familia-etxebizitza utzi behar baduzu, harrera-zentro batera joatea eskatu dezakezu, zuzenean udaleko gizarte zerbitzuetan edo poliziaren bidez, osasun-zentroaren bidez eta abar.
- **ETXEBIZITZA ESKATZEA:** etxebizitza bilatzen lagunduko dizugu. Era berean, Etxebideren zerrendetan izena eman dezakezu alokairuko etxebizitza bat eskatzeko.
- **PRESTAZIO EKONOMIKOA ESKATZEA:** Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak kudeatzen duen ordainketa bakarreko laguntza. Laguntza horretaz gain, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskatu dezakezu.
- **LANA AURKITZEKO ARRETA ETA AHOLKULARITZA PERTSONALA:** zeure neurrirako ibilbide bat eskainiko dizugu, lan-merkatuan eta prestakuntza-

ikastaroetan sartzeko. Tutore bat izan ahalko duzu Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua).

- **GIZARTE LAGUNTZA INTEGRALA:** segurtasun fisiko eta moralerako eskubidea gauzatzeko, zuk eta zure familiak babesa, arreta eta harrera jasotzeko eskubidea daukazue. Zeure neurrirako ibilbide bat eskainiko dizugu, zeure bizitza indarkeriarik gabe berreskuratzekeo.




AUTOBABESEKO NEURRIAK

- **Arriskuan zaudela uste baduzu**, deitu **092** edo **112** telefonoetara, edo joan polizia-etxera.
- **Zeure erasotzailearekin bizi bazara eta beldur bazara**, eskatu informazioa eta aholkularitza espezializatua lehenbailehen. Beharrezkoa bada, pentsatu ihes egiteko plan bat. Izan itzazu beti eskueran larrialdietako zenbakiak (092 eta 112). Sakelako telefonoan gorde ditzakezu eta tekla bati lotu, automatikoki deitzeko.
- **Arreta medikoa behar baduzu**, osasun-zentro batera edo ospitale batera (24 ordu) joan zaitezke, eta gertatu zaizuna azaldu. Beharrezkoa bada, Gizarte Zerbitzuekin edo Udaltzaingoarekin edo Ertzaintzarekin harremanetan jarriko dira.
- Zeure sakelako telefonoan **112 SOS DEIAK aplikazioa** deskargatu dezakezu: eguneko 24 orduetan hitz egin edo mezuak bidali ahalko dituzu. Aplikazioa entzumeneko eta mintzameneko desgaitasuna duten pertsonentzat egokituta dago.
- **EraStop/AgreStop aplikazioa** sakelako telefonoan deskargatu dezakezu: Larrialdietan lagunduta egoteko erabili ahalko duzu; geolokalizazioa, lagun egite birtuala, panikoaren botoia eta abar dauzka. Dohainik da eta balizko sexu-erasoen aurkako babesa ematen du.



- **900 840 111 telefonora deitu dezakezu** (SATEVI, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta telefonoz emateko zerbitzu espezializatura). Bertako profesionalak berehala emango dizute arreta, modu konfidentzial eta anonimoan, urteko 365 egunetako 24 orduetan. Deia doakoa eta segurua da, eta ez da telefono-fakturan agertuko.
- Indarkeriaren biktima eta biziraule diren emakumeei arreta emateko eta indarkeria prebenitzeko lan egiten duten **elkarteen laguntza jaso dezakezu**. Lagunduko dizute, informazioa emango dizute eta prozesu osoan zurekin egongo dira.

Elkarteez zure eskaerak eraman ditzakete EMAKUNDEREN kontsulta-batzordera, emakunde@euskadi.eus, **945 01 67 00**. Izan ezazu gogoan elkarteez autodefentsa feministako eta ahalduztzeko tailerrak ematen dituztela, eta horiek zeure sendatze eta hazte prozesuan indartsuago egiten lagundu ahal dizutela.





ARAZORIK BADUZU, JARRI HARREMANETAN GUREKIN!

ZURI LAGUNTZEKO GAUDE, BEHAR DUZUNERAKO EGONGO GARA ZURE ALBOAN!

- **BERDINTASUN SAILA**
Venezuela plaza 2, 4. solairua. 48001 Bilbo
944 204 838 berdintasuna@bilbao.eus
Premiazkoak ez diren egoeretarako
arreta sozial espezializatua.
Aurretiazko hitzorduarekin, astelehenetik barikura,
8:30etik 14:00etara (ekainaren 1etik irailaren 15era,
8:30etik 13:00etara).
- **UDALTAINGOA**
092/112 (24 ordu)
- **GIZARTE LARRIALDIETARAKO
UDAL ZERBITZUA (GLUZ)**
Uribitarte 11. 48007 Bilbo
944 701 460 (24 ordu) urgencia@bilbao.eus
- **TELEFONOZ INFORMAZIOA ETA ARRETA
EMATEKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUA, SATEVI**
900 840 111 (24 ordu)



EZ ZAUDE BAKARRIK!

**EMAKUMEOK INDARKERARIK GABE
BIZITZEKO ESKUBIDEA DAUKAGU**